

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun komunikazioa oso garrantzitsua da eta munduan 7.000 hizkuntza baino gehiago desberdin erabiltzen direnez, gure helburu nagusia hizkuntza oztopo bat ez izatea da eta horretarako merkaturatzen dugu itzultzaile eramangarria.

Erloju honi esker, gizartean dauden **hizkuntzak eragiten dituen arazoekin amaitzea** espero dugu.



Gure produktuak dituen hainbat ezaugarri dira lehiakideengatik desberdintzen gaituztenak. Produktu hau egoera askotan erabilgarria da, honi esker, arazorik gabe atzerriko jendearekin hitz egin dezakezu. Elkarrizketak arinak dira, itzulpenak osotasunez egiten dituelako. Botoia sakatu, hitz egin eta **berehala itzulpena** lortzen duzu.

Kargari dagokionez, kargatzeko gailu **azkarra** da. Gainera erloju honek, berez, ez du bateria galtzen, itzultzailea bakarrik erabiltzerakoan deskargatzen da, eta hamabi orduko iraupena du.

Bere funtzionamendurako ez duzu interneterako konexiorik behar (ez datuak ezta wifi sarrerik), beraz **konexiorik gabe** erabiltzeko aukera dago.

Itzultzaile gisa erabiltzeaz gain, **erloju gisa** ere erabil dezakezu, hau da, erloju arrunt batek eskaintzen dituen funtzio guztiak ere eskaintzen ditu. Eta ez hori bakarrik, diseinu askotariko erlojuak ditugunez, hainbat kolore eta modelokoak, **moda osagarri** gisa ere erabil dezakezu.

Baina **lan merkatuan** ikusten dugu bere erabilgarritasun handiena. Lan egiterako orduan garrantzia handia ematen zaie hizkuntzei. Badaude bere lanean oso espezializatuta dagoen jende asko, adibidez mediku bat, eta agian hizkuntza faltagatik ez dute kontratatzen. Eta hizkuntza falta hori dela eta, mediku oso on bat gal daiteke. Gure produktuak egoera horri irtenbidea emango dio. Baita profesionalak beraien lanean hizkuntzarengatik bezeroekin izan ditzazketen **komunikazio arazoak murriztea** lortuko da..